

# noaua



## "DESBERDINTASUNAK AHULTZEN GAITU, ELKARLANAK INDARTU. USURBIL HERRI ZAINZAIKIA ERAIKI DEZAGUN"

"Zaintza publiko komunitarioaren eraikuntza" solasaldian esan zena laburbildu dugu / 06-07

ARGAZKIA: NOAUA

**Udal parekidetasun sailak bi ikastaro iragarri ditu urte hasierarako** / 05

**Eguberrietan antolatu diren ekitaldiak iruditan jaso ditugu** / 11

**Aurrerantzean Oiardo kiroldegia zabalik izango da eguerdian** / 18

**Etxeko taldeak punta-puntan Miroitzen omenezko txapelketan** / 20

*i  
l  
e  
a  
p  
a  
i  
n  
d  
e  
g  
i*

**m**

**GOLDWELL  
ELUMEN**

*Azkeneko produktu eta teknikak!*

**mistoa**

Zubiaurrenea 4, ☎ 943 361 951

**FUNERARIA  
GONZALEZ  
EHORZTETXEA**

munalurra 8, USURBIL

**OCASO, SANTALUCIA...IZANEZ GERO,  
HERIOTZA GERTATZEN BADA,  
DEITU ZUZENEAN GURE BULEGORA 24H,  
(edo aseguruari gure zerbitzuak eskatu).**

MOMENTU LATZETAN GUZTIAZ ARDURATZEN GARA

**943 36 21 63 (24 orduz)**

·BEILATOKI GUZTIAK ·ERRAUSKETAK ·LEKUALDAKETAK

[www.funerariagonzalez.es](http://www.funerariagonzalez.es)

**URDAIRA**

*Sagardotegia*

URTARRILAREN 13an, LARUNBATA  
IREKITZEN DUGU!

☎ **943 37 26 91**

📍 **AGINAGA**

\*Astelehenak itxita

[f](https://www.facebook.com/urdairasagardotegia) [i](https://www.instagram.com/urdairasagardotegia) @urdairasagardotegia | [www.urdairasagardotegia.com](http://www.urdairasagardotegia.com)

**noaqa**

jarraitu gure sare sozialak

facebook Instagram

twitter noaqa

[www.noaqa.eus](http://www.noaqa.eus)

# Lan-istripuen aurka Correos Express-en

Lantegian izandako istripuen aurka mobilizatu ziren Atalluko Correos Express-eko langileak, urtarrilaren 4an.

Lantegian izan dituzten istripuak salatzerira irten ziren urtarrilaren 4an Atalluko Correos Express-eko langileak lantoki atarira. Azkena, larriena, astebete lehenago pairatu zutela berrieman zuten, CCOO, LAB, ESK, UGT eta ELA sindikatuek deitutako elkarretaratzean. "Orga jasotzaile batek harrapatu zuen behin-behineko lankide bati gertatutako

azken istripua eta pabiloi horretako lan-baldintzak salatzeko" eten zuten haien eguneroko jarduna.

## Lan-baldintzen salaketa

Izan ere, larriena izan den istripu horren aurretik ezbehar gehiago izan dituztela salatu zuten. "Pabilioiak martxan daraman urtebete pasatxoan ere esku harrapaketa kopuru



Correos Express-eko langileek iragan astean egindako protesta.

handia izan da sailkapen-makina batean. Enpresa Batzordeak eta Segurtasun eta Osasun Batzordeak zentro horre-

tan lan egiten duten langileen lan-baldintzak salatu dizkiote Gipuzkoako Lan Ikuskaritzari", ohartarazi dute sindikatuek.

## Joxan Artzeren omenezko ekimena udal liburutegian

Joxan Artze poeta hil zela sei urte beteko dira urtarrilaren 12an. Urteurrenean, sortzaile usurbildarra oroitzeko ekimena iragarri dute Sutegi udal liburutegian. "Oroimen eta gorazarre mezuak idazteko", Erregistro Liburua jarriko dute liburutegiaren harrera-mahaian.

## Pagazpe, Espainiako txapelketako irabazlea

Aurreko aldizkarian Pagazpe munduko hirugarren pilota egokituko txapeldun zela aipatu genuen baina ez zen hala izan, Espainiako txapelketa irabazi baitzuen.

Albiste berean, Beñat Lizaso Pagazpeko kide zela aipatu genuen eta ez da hala. Barka eragozpenak.

## "Soneto bat irakurtzeko 20 modu"

Urrian egin zen Booktegi jaialdian iragarria zegoen baina bertan behera utzi behar izan zuten. Urtarrilaren 21ean egingo da, 18:00etan Sutegin. Harkaitz Cano, Beñat Barandiaran eta Maite Larburu igoko dira oholtza gainera. Sarrerak 5 eurotan, usurbil-kultura.eus plataforman.

## Hurrengo odol-ematea, urtarrilaren 15ean

Odola emateko hurrengo saioa urtarrilaren 15ean izango da. 16:30-20:10 artean, Udarregi ikastolako erdiko aretoan. Aurrez odola eman dutenei hitzordua finkatuko zaie. Lehen aldiz odola ematen dutenek dei dezatela aurretik 943 007 884 telefono zenbakira.

**noaua**

**TOKIKOM**

**Argitaratzailea:**  
Noaua Kultur Elkartea  
Bordaberrí 3, Eguzkitzaldea  
20.170 Usurbil  
943 360 321  
elkartea@noaua.eus

**Elkarteko lehendakaria:**  
Idoia Torregarai.  
**Aldizkari koordinatzailea:**  
Imanol Ubeda.  
**Idazkaria:**  
Alaitz Aizpurua.

**Erredakzio kontseilua:**  
Aritz Lasarte, Ixaso Orbeagozo,  
Imanol Ubeda.  
**Diseinua:** Goiena.  
**Publizitate arduraduna:**  
Beatriz Alda.

Tel.: 943-360 321  
publizitatea@noaua.eus  
**Banatzaleak:**  
Iñaki Irazusta, Iban Maritxalar.  
**Lege Gordailua:** SS-668-96.  
**ISSN:** 1136-6818.

**Tirada:** 2.980 ale.  
**Imprimategia:**  
Antza inprimategia. Zirkuitu  
ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.  
**Harremanetarako:**  
erredakzioa@noaua.eus



**Gipuzkoako Foru Aldundia**



**Usurbilgo Udala**

## IRITZIA



AINHOA AZPIROZ EIZMENDI

## Erosketak eta eraketak

**G**aindosira iritsi naiz. Saturazio puntura ailegatu eta amore eman dut. Sinplifikatu egin nahi dut, baina ez da erraza.

Ogia erostera joan eta "zein ogi nahi duzu? Handia, txikia, mediana, txalupa, integrala, gatzik gabekoa, arto-irinekoa, pasak eta intxaurrak dituena, pipaduna, mendiko, mendiko bital, familiarra, zopako ogia, kaseroa... Uf, a ze zorabioa. Ogi bat eskatu dut, besterik ez...

Bonbilla bat erostera joan eta master bat egin behar dudala sentitu dut. "Nolakoa nahi duzu?" Eta minutu batean kolorea, kontsumo maila, potentzia eta konexio mota jakin behar ditut eta ateratzen zaizkidan aukerei iraupena eta prezio konparaketak gehitu behar dizkiet. Master bat behar da azken erabakia zuzena, egokia eta bermeak dituena izateko; ia-ia loteria tokatzea bezalakoa da.

Supermerkatura jogurtak erostera joan eta zer da hau? Hamar metro luzeko apalategia, dena jogurtez betea: naturalak, zaporedunak, gaingabetuak, grekoa, zerealdunak eta bifidus aktiboak dutenak; txikiak, ertainak eta handiak; mamiak, flanak eta natilak. Eta hori dena bider bost edo sei marka, marka bakoitzak bereak dituelako.



Hamar metro luzeko apalategia, dena jogurtez betea. Master bat egin behar da erabaki egokia hartzeko. UNSPLASH.COM

Pareko apalategira begiratu eta gaztekin beste horrenbeste. Posible ote da hainbeste gazta klase egotea? Zer diferentzia egongo da batetik bestera? Makarroiei gaintetik botatzeko gazta birrinduak ez ote du balioko pizzari botatzeko?

Ez da gutxiagokoa kiroletako oinetakoekin pasatzen dena. Ezin da kiroletako oinetako orokorrik

**"MAKARROIEI  
GAINETIK BOTATZEKO  
GAZTA BIRRINDUAK  
EZ OTE DU  
BALIOKO PIZZARI  
BOTATZEKO?"**

erosi, kirol bakoitzerako zapatila mota bat dago: korrikarako, teniserako, boleibolerako, ibiltzeko, mendirako, gimnasiarako, pelotarako... Kalean ibiltzen hasi eta umearen atzetik korrika hasiz gero, adi, zapatilak aldatu behar dira aurrena! Belarretatik frontoira pasatzen bagara ere bai, lurzorua desberdina baita! A ze lanak! Erotzekoa.

Kuban bizitako euskaldun batek dio bere alaba Euskal Herrian Disneylandian bezala dagoela, harrিতuta eta ahozabalik hainbesteko aukerarekin. Ni, ordea, harriduratik galduta sentitzen pasatzen naiz. Sinplifikatu egin nahi dut, baina ez dago erraza. Nondik hasiko naiz?

## Patinete eta monoziklo elektrikoak debekatuak trenean

Azken urteotan gailuon bateriek eragindako sute eta leherketak eta haien "kalte fisiko eta material larriak" saihesteko Euskotrenek debekatu egingo du urtarrilaren 15etik aurrera patinete eta monoziklo elektrikoak tren barruan sartzea. Debeku hau "instalazio guztietara hedatzen da, hala nola atondoe-tara eta nasetara, sarrerako eta irteerako balidazio-lineatik abiatuta".

Euskotrenetik ohartarazi dutenez, halere, "neurriak ez die eragingo mugikortasun urriko pertsonen ibilgailuei, ez eta bizikleta elektrikoiei ere, horiek erabiltzen jarraitu ahal izango baitute".

Debeku honek eragingo dituen aldaketak tarteko, patineteak aparkatzeko moduluak pixkanaka sartzea sustatuko dute sareko zenbait puntutan eta dagoeneko bizikleta-aparkalekuak dituzten geltokietan.

## Aurrerantzean Unai Gaztelumendik egingo ditu NOAUA!ko komiki-tirak

Hamabostean behin komiki-tira bat argitaratzen dugu TOKIKOMEn baitako hainbat herri aldizkari. Azken urteotan, Garbiñe Ubedak osatu du lan hori. Aurrerantzean ordea, Unai Gaztelumendi aňorgatarra izango da komiki-tira egiteko ardura izango duena. Lehen alea aldizkari honetan bertan topatuko duzue.





Eider Zuriarrainek biodantza ikastaroa eskainiko du. Eskubian, Pepa Boj6.

# Jabetza Eskolaren edizio berri bat hastera doa

Eider Zuriarrainek eta Pepa Boj6 ikastaro bana eskainiko dute. Izen-ematea aste honetan amaituko da.

Udal parekidetasun sailak bi ikastaro iragarri ditu urte hasierarako. Pepa Boj6 berdintasunezko harremanen inguruan arituko da eta Eider Zuriarrainek biodantzari buruzko ikastaro bat eskainiko du. Batean zein bestean izena emateko epea urtarrilaren 5ean zabaldu eta 12an amaituko da.

## Ikastaroak

### Biodantza ikastaroa, Eider Zuriarrainekin

- Eguna: Asteartean, 15:30etik 17:00etara, Oiardon.
- Epea: Urtarrilaren 16an hasita, martxoaren amaierara arte.
- Izen-ematea: udaletxera jo edo telefonoz deitu zenbaki honetara: 943 37 19 51.

### Pepa Boj6ren ikastaroa

Komunikatzen ikastea, berdintasunezko harremanak eta espazio osasungarriak sortzeko.

- Eguna: Ostegunetan, 17:00etatik 19:00etara, Potxoenean.
- Epea: Urtarrilaren 18an hasita, martxoaren amaierara arte.
- Izen-ematea: udaletxera jo edo telefonoz deitu zenbaki honetara: 943 37 19 51.

## PEPA BOJ6REN IKASTAROA URTARRILAREN 18AN HASIKO DA. IZEN-EMATEA ZABALIK DA

## Aholkularitza zerbitzuak

### Sexu aholkularitza

Adin guztietako herritarrei zuzendutako zerbitzua da, herritarrek sexualitatearen inguruan izan ditzaketen zalantza, zailtasun eta/edo informazio beharrei erantzuteko.

- Eguna: Hilean bi astelehenean, 17:00etatik 19:00etara, Potxoenean. Urtarrilaren 8an eta 22an, otsailaren 5ean eta 19an eta martxoaren 4an eta 18an.
- Hitzordua hartzeko: 650 232 714 / info@xelebreak.com

### Aholkularitza juridikoa

Udalak Irule abokatu taldea kontratatu du, aholkularitza juridiko zerbitzua eskaini dezan: Usurbilgo emakume guztiei zuzendua. Ordubeteko aholkularitza legala jasotzeko aukera dute.

Hainbat gai konplexuren inguruko informazio juridikoa eskainiko dute: banaketa, dibortzioa, emakumeen kontrako erasoei buruzko prozesu penalak, dibortzio prozesuetatik sortutako gatazkak, mantenu pentsioen ordainketa ezak, bisita erregimenen ez betetzeak, atzeritartasunarekin lotutako arazoak, etxeko langile zein gainontzeko langile emakumezkoen kaleratzeak, diskriminazioa, eskubideei buruzko informazioa, laguntza sozialak eta bestelako kontsultak.

- Egunak: Hilean behin, asteazkenean, 15:00etatik 18:00etara, Potxoenean. Urtarrilaren 24an, otsailaren 21ean eta martxoaren 20an.
- Hitzordua hartzeko: udaletxean aurrez aurre, edo 943 37 19 51 telefonora deituz.

## Aitziber Ugartemendia Zubeldiaren omenez

Aitziber Ugartemendia Zubeldia abenduaren 16an zendu zen. Herrigintzan zuen onena eman zuen urte luzez, bereziki Andoainen, baina baita Zubietan ere, Zubietako eskolan hain zuzen. Guraso elkarteko eragile nagusietakoa izan zen Ugartemendia. Eskolaren bueltan antolatutako dinamiketan bera lanean ikustea oso ohikoa zen. Horrez gain, aipatu ikastetxeko Organo Goreneko kidea zen.

Ogibidez, Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoen Katxi-porreta konpainiako kide zen.

### "Betikoak betirako"

Zubietako bere lagunak eske-la bat osatu zuten ondoko bertso-lerroekin.

*Gozatu dugu lagun arteaz ondo hil artean bizitza dantzatzuz ero zu lasai bazaude, lasai dago oro zerbait izango dela dakigu gero*

*Tajarraituko dugu elkarzaintzen bizipen guztiak ondo oroitzen ai Aitziber zein ederra haizen hirekin gora gaitun etortzen*

### Betikoak betirako



Aitziber Ugartemendia. AIURRI

**ARANKA BERRIKUNTZAK**  
 · Fatxadun estaldurak · Estalkien berritzatzeak  
 · Barruko berrikuntzak · Gremioen koordinaketa  
 · Igeltseritza orokorra  
**606 37 21 05 USURBIL**

*Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!*  
**USURBILGO HORTZ KLINIKA**  
 ANTON BERNAL RUIZ DE OÑA  
 EKAITZ GARMENDIA MERINO RPS: 28/22  
**943 37 08 78 NAGUSIA 10, 1 C4 USURBIL**

**Uraltz, s.l.**  
 Igeltseritza Orokorra  
  
**693 059 392**  
 uraltz@uraltz.com USURBIL



Azaroaren 30eko greba feminista orokorrean egindako solasaldian parte hartu zuten hizlariak.

# Zaintza zaindu beharra agerian

Zaintza hausnarketarako gaia izan zuten iragan azaroaren 30eko greba feminista orokorrean, Usurbilgo greba batzorde mistoak frontoian antolatutako solasaldian. Askotariko ertzetatik zaintza lanetan dihardutenen ahotsak bildu zituzten.

Gehienak bat zetozen argi dagoenarekin; zaintza lanak emakumeen gain daudela eta zama horrek zaintzaileengan eragin kaltegarria duela, batez ere mentalki. Izan ere, zereginotara bideraturiko energiak eta denborak haien burua zaindu edota komunitatean bizi eta parte hartzea eragozten die. Datu argigarri hauek eta beste hainbat ondorio ere plazaratu zituen, azaroaren 30eko zaintza eskubide kolektiboaren aldeko greba feminista orokorraren harira, Usurbilgo greba batzorde mistoak eginiko galdeketak. Emaizten berri, zaintzari buruz frontoian antolatutako solasaldian eman zuten.

**"Zama emozional handia da"** Lekukotza biziki interesgarri askoak entzun zituzten fron-

toira joandakoek. "Bizitza oso zaindalanetan pasa dut", zioen bertaratu ezin izan zuten emakume baten testigantza. Zereginon aurrean, zaintzaileak zaindu izateko beharra aldarrikatu zuen beste ahots bat ere bildu zuten solasaldian. "Aurten konturatu naiz, gauza asko ukatzen ari naizela neure buruari. Nik ere nire bizitza egin behar dudala", bere gain dituen zaintza lanekin uztartuta. "Ez da batere erraza" zioen, baina egiteko beharra adierazi zuen.

Soldatapean ogibidez alor honetan diharduten emakumeen lekukotzak ere batu zituzten greba egun honetan. Lan-baldintzetan berme falta zegoela adierazi zuten, lantokitik lantokira oso ezberdinak izaten direla, ogibide ezegonkorra izateaz gain. Haien egu-

neroko jardunean, zeregin zehatzetarako kontratatuak egon arren, hitzartutakoaz gain, lan gehiago egitea egokitzen zaiela azaldu zuten; hala nola, lan egiten duten etxekoa medikutara eramatea edota sarritan psikologo lana egin beharra egokitzen zaiela. "Zama emozional handia da eta deskonektatzea oso zaila", zioen langileotako batek. Haien ogibidearen duintasuna aldarrikatu zuten. "Bakoitzak bere

**ZAINZAILAK:  
"ZAMA  
EMOZIONALA  
HANDIA DA ETA  
DESKONEKTATZEA  
OSO ZAILA"**

lana egin behar du", eskatu zuten.

## Eskubide falta

Ez zen erraza, baina lortu zuten baita, greba feminista orokorraren egun hartan, lanuztea egiteko zailtasun gehien izan zitzaizketenen ahotsa erakartzea. Salvadorren jaiotako Soniak hartu zuen hitza. Bizimodu hobeko bat izateko asmoz etorri zen gure artera. Aldiz, "lehen hilabeteetan ez zaigu uzten lan egitea. Lan baimenik gabe ez duzu ezertarako eskubiderik", eta "surtatzen den horretan" aritu behar. Kasu honetan, adinekoen zaintza lanetan. "Oso gogorra eta zaila izan zen hasieran. Negar asko egin nuen". Interna gisa dihardu lanean. "Oso nekagarria da psikologikoki", zioen. Egunez lanean, eta gauez ikasteko tartea ateratzen du. Egun horretako grebarekin bat egin zuen esanez, borrokatzeko beharra zegoela, "baldintza duinak ez dituzten emakumeengatik". Ildo horretan, "desberdintasunak ahultzen gaitu, elkarlanak indartu. Meta ditzagun indarrak gizartea hobetzeko" deitu zuten.

## Bi belaunaldien zainketa

Adinekoen zaintza lanez ari gara, baina zaintzaileak ere badira aiton-amonak eta haien ikuspegia ere jaso zuten solasaldi honetan. Egun, adin tarte horretan diren askok, etxeko nahiz handik kanpoko lanen "kontziliazio arazoak" sufritu dituztenak dira, seme-alaben zaintzatik biloben zaintzaz kargu egitera igaro direnak. "Aiton-amonak ikusezinak gara. Abusatuak askotan". Horregatik, "Usurbil herri zaintzailea egin dezagun", galdegin zuten.

## Zaintza beharra hazten

Usurbilen zaintza gaietan nola garen kokatzen laguntzeko datu gehiago ere eskaini zituen lekukotzen artean, Maria Salsamendi Udaleko gizarte zer-

bitzuen saileko teknikariak. Udalerri honek dituen 6.350 biztanletik 1.256k 65 urte baino gehiago ditu. Haietatik %67a emakumezkoak dira eta %20a bakarrik bizi da. Adin tarte honetako biztanle kopurua nabarmen igoko dela aurreikusten dute, %31 izatera igaro daitekeela 2060. urtean.

Zaintza beharrak handituko direla begi-bistakoa da. Egun, emakume migranteak dira lan hauez herrian zereginotaz arduratzen direnak, ia ehuneko ehuna dira interna gisa dihardutenen artean. Bertan jaiotakoak gehiago dira, esaterako, etxez etxeko zerbitzuan. Zaintzarako Udalak duen baliabideen eskaintzaren errepasoa egin zuen: Eguneko Arreta zerbitzua, Eguneko Zentroa, Egurtzegi ireki berria, zahartze aktiboa sustatzeko ekimenak...

**"Erantzun kolektiboa"**

Herri honetan komunitateak duen indarra nabarmendu zuen, "elkarlanean aritzeko dagoen ohitura oso lagungarria da edozein proiektu antolatzerakoan". Halaxe egin dute baita pandemiak agerian utzitako zaintza krisiari erantzunez, azken urteotan Usurbil jorratzen ari den bideari dagokionean ere. "Iraupen luzeko zainketen sostengarritasuna bermatu behar da", zioen alkate Agurtzane Solaberrietak solasaldi berean, etorkizunari begirako erronkei buruz ziharduenean. Izan ere, batzuek beste 14 urtera arte luzatu daiteke pertsona baten zaintza beharra egun. Behar hauei erantzuneko zaintza ekosistema berriak nolakoak behar duen, herri hau marrazten nola ari den azaldu zuen. Argi zioen, "erantzun kolek-



Zaintzaz hausnartzen aritu ziren taldeka, azaroaren 30eko greba feminista orokorrean.

tiboa" eman behar zaiola eta hala hasi zuten duela bi urte alor honetan zeresana duten askotariko norbanako eta eragileek parte hartze prozesua.

**2030erako erronka**

Zaintzari buruzko hausnarketa sakona bideratu dute ordutik, zaintza definitzeaz gain. Egungo eredu iraultzeko bigarren fasera begira bost talde osatu zituzten. Inplementazio garaia da oraingoa. Usurbilek "bide-orria, estrategia, plangintza badu", alkaterean esanetan. 2030. urterako "norbere bizitza proiektuari erantzuneko zaintza

eredu integral eta duinalortzea, erantzunkidetasuna, eragileen arteko lankidetzeta eta zaintza langileen profesionalizazioa eta duintasuna ardatz izango duena". Misio hauxe marraztua dute. Horretarako, helburuok finkatu dituzte: 65 urtetik gorako pertsonen %25ak zaintza plana martxan izatea; Usurbilgo 5 auzotan %25 gizonetzkoak izango diren zaintza sareak martxan jartzea; zaintza langile eta familien %50 zaintza ekosisteman egotea; etxez etxeko zerbitzua jasotzen dutenen kopurua eta zaintzarako prestazioa jasotzen dutenena orekatzea (%50).

Zaintza ekosistema eredu berriaren ezaugarri nagusiak deskribatu zituen; "Usurbilen errotua, oinarri komunitarioa izango duena, pertsona erdigunean kokatuko duena, etxetara begira dagoena". Hain zuzen, gogora ekarri zuenez, %90ak etxean zaindua izateko nahia agertzen baitu. Hala ezin bada, etxean bezala sentiaraziko duten ekipamenduak eskaini nahi dituzte; hala nola, Egurtzegi eta Txirikorda aipatu zituen alkateak.

**Zaintzaren ispilu**

Aurten, Ugartondon irekitzeko duten belaunaldiarteko etxebizitza komunitarioan biziko diren bi neska gazteek ere hitza hartu zuten saio berean. Argi zioten, aipagai duten zaintza eredu horren ispilu izatea nahi dute Txirikorda. Herriari ere ekarpena egin nahi diote. "Herriarentzat beste baliabide bat eta lagungarria izatea" nahi dute laster Txirikordan biziko direnek.

**"ELKARLANEAN ARITZEKO DAGOEN OHITURA OSO LAGUNGARRIA DA EDOZEIN PROIEKTU ANTOLATZERAKOAN"**

**ETORKIZUNERAKO "USURBILEK BIDE-ORRIA, ESTRATEGIA ETA PLANGINTZA BADU"**

Okindegia-Gozotegia  
**LABE-GOXO**

**txirriStra**  
PLATER KOMBINATUAK · BOKATAK · PINTXOAK  
**TABERNA**  
Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

**Patxi**  
PATXIEN  
bazkariak EGUNERO  
· afariak ostirala eta larunbata  
© 943 362725 · © 688 690 361



2024ko udal aurrekontuak hasieraz bozkatu zituzten unea, joan den abenduaren 20ko osoko bilkuran.

# Kontrako botorik ez udal aurrekontuek

Estreinakoz, kontrako botorik gabe hasieraz onartu zituzten 2024ko udal aurrekontuak, abenduaren 20an egin zuten osoko bilkuran. Izan ere, EHBilduko gobernu taldeko kideekin batera, EAJ-ren ordezkariak ere alde bozkatu zuten. PSE abstenitu egin zen.

Hain zuzen, orain arte izan gabeko adostasun maila handia nabarmendu nahi izan zuten udal gobernu taldeak. Hasieraz onartzeraz zihozanek adostasunaren, auzoak eraberritzearen eta herri misioetan sakontzen duten aurrekontu gisa definitu zituen udal gobernu taldeak urteko azken osoko bilkuran. 13 milioi euro pasatxo izango ditu herri honek urte berri honi begirako egitasmoei heltzeko, "kasik iazkoaren pare", azken hamarkadako aurrekontu proiektu handienetakoa da hasieraz onartu zutena.

## Ez Dok Amairu parkea

Bost erroka handiei erantzun nahi diete udal aurrekontuok. Batetik, trantsizio ekosozialaren ildoak jorratuko dute; efi- zientzia energetikoari, energia

berritzagarriari, hondakinen kudeaketari, mugikortasun jasangarriari edota klima teknikiaren kontratazioari lotutako neurriak iragarri ditu udal gobernu taldeak. 650 Usurbil Bizi egitasmoa izango da beste lan-ildoetako bat; Ez Dok Amairu parkea eraikiko dutela iragarri zuten. Gizarte babesa indartzera bideraturiko udal aurrekontuak izango dira baita 2024koak, eta besteak beste, "inbertsio handia" iragarri dute zaintza ekosistema eredu berria inplementatzeko.

## Hitzarmenak

Horrez gain, Udalaren eraldaketara ere bideratu nahi dituzte aurrekontuok, "misioak ardatz dituen gobernantza eredu berrira" eta udalaren digitalizaziora. Usurbilgo herri nahiz auzoak eraberritzeko

ere hainbat neurri iragarri zituen udal gobernu taldeak abenduaren 20ko osoko bilkuran; Kalezar seguruago izateko oinezkotzea, Aginagako Elutx bideko berdeguneko proiektua eta bertako Eliza Zaharreko teilatu konponketa. Zubietari dagokionean, Herri Batzarrarekin adostu beharreko diru partida bat du Udalak, Txokoaldeko zubia berritzeko hitzarmena Eusko Trenbide Sarearekin eta hi-

**"13 MILIOI EURO  
IZANGO DITU HERRI  
HONEK URTE BERRI  
HONI BEGIRAKO  
EGITASMOSI  
HELTZEKO"**

tzarmena baita Matiarekin, Kalezarko zaintzadun etxebizitzaren auzune berrira iristeko autobus geltoki berria eta igogailua eraikitzeko. Handik hurbil, Pelaiotzen kokatuko den Emakumeen Etxearen irekiera ere aurtengo erroken baitan kokatu zuten.

## Elkargunea

Horrez gain, etxebizitzaren gaiari heldu nahi dio udal gobernu taldeak. Etxe hutsen diagnostika egin eta berriki, zonalde tentsionatu gisa izendatzeko udalerrri honek duen aukeren bueltan zer nolako urratsak eman ere aztertu asmo dute.

Gogoan izango duzue, bestealde, aurreko udaberrian aurkeztu zuten Usurbilgo kultur eragileak nahiz aisialdi alorrean dabiltzanak bateratuko dituen Elkargunea. Hurrengo definitzeko parte hartze prozesua abiaraztekoak dira aurtun.

## Ekarpen onartuak

Hasieraz onartuak dauden udal aurrekontuen partiden artean, badira oposizioko talde politikoek eginiko ekarpenak. Horiek txertatzeko "ahalgin handia" egin dutela nabarmendu zuten alkateak 2023ko azkeneko osoko bilkuran. "Gehienei bide eman zaie. Emendakin guztiak aho batez onartu" zituztela ere gaineratu zuten. Horien artean, adibide gisa aipatu zituen, espazio publiko hobetzera, kirol arloko dirulaguntzak handitzera edota tokiko merkataritzaren garapenera bideratuko dituzten partidak.

## "Hau da bidea"

Botoa eman aurretik hitza hartzeko izan zuten tartean, EAJ-tik udal aurrekontuok babestuko zituztela iragarri zuten Xabier Otxoa bozeramaileak. "Bi aldeetatik adostasunerako borondatea egon da. Hau da bidea", nabarmendu zuten, ildo horretan segitzeak ekar ditzakeen onurak ahotan



→ hartzearekin batera; "elkarrekin gauza onak lor ditzakegu usurbildarrentzat". Urrats hau, horren guztiaren "hasiera izatea" desio izan zuen. Ildo beretik mintzatu zen baita Petra Romero. PSE-ren bozeramailaren esanetan, "ezberdinen arteko elkarlana" go-raipatu zuen, "hau da egin behar den bidea" adieraztearekin batera. Baina iragarri zuenez, "ezin dugu bat etorri partida batzuen xedearekin". Horregatik, abstenitzea erabaki zuen.

### Aukera galdua

Udal gobernu taldetik pozgarritzat eta pauso garrantzitsutzat jo zuten EAJren aldetik, "adostasunera heltzeko agerturiko prestasuna". Zentzu horretan, pozgarritzat jo zuen Ainhoa Arrozpidek "gaur hemen gertatzen ari dena", eta "balioan jarri nahi dugu". Aldiz, kritiko agertu zen PSEtik iragarritako abstentzioarekin. "13 milioi euroko aurrekontuetatik 90.000 euroekin desados agertzea nahikoa da abstentzioa justifikatzeko? Gure ustez, ez". EHBilduren esanetan, osoko bilkura horretan, "herri akordio oso garrantzitsua" izateko aukera galdu zen.

Halere, "herri garapena osatzen dute ezberdinen arteko akordioek", adierazi zuen alkateak. Bide horretan, "gu hor egongo gara", iragarri zuten EHBildutik. Udal aurrekontuen hasierako bozketarekin gertaturikoa, "izan dadila legealdiko praktika nagusia" desio nahi izan zuen Agurtzane Solaberrietak.

### Erreklamazio epean

Aipatu moduan, beraz, lehenbiziko aldiz, kontrako botorik gabe baina era berean, erabateko adostasunik gabe, gehien-go osoz onartu zituzten hasieraz 2024rako udal aurrekontuak. Urtarrilaren 4az geroztik, hamabost laneguneko erreklamazio epea zabalik du Udalak. Tarte horretan,



Udal langileei lotutako zenbait erabaki hartu zituzten azkeneko osoko bilkuran.

inork halakorik aurkezten ez badu, behin betiko onartutzat joko dira. 2024ko udal aurrekontuekin batera urtero moduan, urte berrirako Plantilla Organikoa eta Lanpostuen Zerrenda onartu zituen hasieraz udalbatzak.

### Bizitza aseguru

Udal langileei lotutako erabaki gehiago ere hartu zituzten saio berean. Orain arte "bizi eta ezintasun iraunkor, oso edo absolutu aseguru" zuten udal langileek. Zinegotziek, aldiz, "istripu poliza". Udaltetik gogorarazi dutenez, udalbatza hamahiru udal ordezkarietaz osatua dago, "horietatik hiru zinegotzi osoki liberaturik eta beste bat lanjardun erdian. Bestetik, izendapen askeko ebentual bat ere badu soldatapean". Aseguru ezberdinekin ordea. "Izendapen askeko ebentuala bizitza ase-

guruan alta emanda dago baina aldiz zinegotziek istripu aseguru dute, horietako lau soldatapean egon arren".

Horregatik, asteazken honetako osoko bilkuran, "egoera horrek sortzen duen nahasmena argitze aldera, zinegotzientz "egoera argitzeko beharra" ikusi zuten. Ondorioz, udal langileen hitzarmenaren 95. artikulua aurreikusitako "bizi eta ezintasun iraunkor, oso edo absolutu aseguru" udal zinegotzi guztiei eta izendapen askeko langile ebentualei aplikatzea erabaki zuen udalbatzak aho batez, 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera.

### 2023ko soldata igoera

Langile publikoen urteko bigarren soldata igoera ere onartu zuen aho batez udalbatzak azaroaren 29ko osoko bilkuran. Martxoaren 30eko osoko bilkuran langile publikoen urte-

ko lehenengo soldata igoera onartu zuten, %2,5ekoa. %0,5ekoa azaroa amaierako udalbatzarrean, 2023ko urtarrilaren leku ondorioekin. Udalbatzak hartutako erabakia abenduaren 21eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zuten.

### "Udalsarea 2023"

"Tokiko ekintza jasangarria eta tokiko 2030 Agenda Euskadi bultzatzeko -Udalsarea 2030, udalerrri jasangarrien euskal sarearen berriztapena-akordioari atxikitzea" onartu zuen udalbatzak aho batez abenduaren 20an egindako osoko bilkuran. Akordioak lau urteko indarraldia izango du. Sare horretan Udalak izango duen ordezkarietza definitu zuten. Usurbilgo Udalak akordio honekin bat egitea erabaki du, izan ere, "Usurbilgo Udala lerratuta egon izan da lan ildo honekin". Hain zuzen, Udalak 2008an Agenda 21eko ekintza plana onartu zuen "Usurbil jasangarritasunaren bidean kudeatzeko ekimenaren baitan". Udala ordutik, "Udalsarea 21 sareko kide izan da". Baliagarria izango da akordio honi atxikitzea beste herrietako praktika onak ikasi eta herri honek izan ditzakeen hainbat erronkei heltzeko dirulaguntza deialdi hainbatetara aurkeztea ahalbidetuko baitio Udalarri. Norabide honetan, halako pauso gehiago emana da lehenetik Udala, azken osoko bilkuran gogorazti zuten. Hobeki hondakinen kudeaketa hobetzeko Euskal Herriko toki erakundeen elkarteko kidea da Usurbilgo Udala, eta udaberrian, bestalde, lau izarreko Zero Zabor Ziurtagiria jaso zuen udalerrri honek.

### Ugarte eta lartza

Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako bi eremuotako xehetasun-azterketak behin betiko eta aho batez onartu zituen udalbatzak abenduaren 20ko osoko bilkuran.

**ERABATEKO  
ADOSTASUNIK  
GABE GEHIENGO  
OSUZ ONARTU  
ZITUZTEN UDAL  
AURREKONTUAK**

**UDALSAREA 2030,  
UDALERRI  
JASANGARRIEN  
EUSKAL SARERA  
ATXIKITZEA  
ERABAKI ZUTEN**



Korrika da Udalak lagunduko duen euskararen aldeko ekimenetako bat.

# 1,1 milioi euro pasatxo, 2024ko udal laguntzetarako

13 milioi pasatxoko udal aurrekontuetatik milioi bat euro baino gehiago hamaika egitasmo diruz laguntzera bideratuko du gobernu taldeak abiatu berri dugun 2024. urtean.

Laguntzei buruz ari garela, abenduaren 20ko osoko bilkuran Etxeko Laguntza Zerbitzua finantzatzeko Usurbilgo Udalaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren arteko hitzarmena beste urtebetez luzatzea onartu zuen udalbatzak aho batez. Horrez gain, udal dirulaguntzen plan estrategikoko 2024ko eranskina ere aho batez onartu zuen udalbatzak. Urte berrian sartzearekin batera, guztira 13 milioiko udal aurrekontuetatik 1.178.417 euro bideratuko ditu gobernu taldeak laguntza eskaintza zabalaren bidez. Gizarte babesa bermatu edota tokiko garapena sustatzera (herri merkataritzara, nekazaritzara, kulturara...) bideratu nahi dituzte laguntzok.

## Hamaika egitasmo

Euskalgintzari dagokionean, euskara ikastera, NOAUA! K.E.-ra, ikastolen aldeko jaialdietara, Hizkuntz Eskubideen Behatokia, Euskal Herrian Euskaraz-era, Jakin eta Elhuyar fundazioetara, Korrikara edota enpresetan euskara

sustatzera bideratu asmo dituzte.

Garapen ekonomikoa eta enpleguari dagokionean, herri merkataritza eta ostalaritza sustatzeko dirulaguntza eskainiko du Udalak, lokal hutsetan jarduera ekonomiko berriak abiarazteko laguntzak, Hasiz-Hazi Kabiene elkarlan gunean urtebeteko egonaldia egitea ahalbidetzeko baita.

Gazteria alorrari dagokionean, aisialdiko begirale eta zuzendari izateko ikastaroak ere diruz laguntzen jarraituko ditu Udalak 2024an. Hezkuntzan, musika irakaskuntza eta musika-kultura suspertzeko dirulaguntza eskainiko dute.

Hirigintza alorrari dagokionean, Usurbilgo etxebizitzan

**1.178.417 EURO  
BIDERATUKO DITU  
GOBERNU TALDEAK  
LAGUNTZA  
ESKAINITZA  
ZABALAREN BIDEZ**

alokairuak ordaintzea laguntzeko edota etxebizitzetan igogailuak instalatzeko laguntzak edota ETSrekin sinatutako hitzarmena betearaztea izango dira Udalaren erronkak 2024an. Idazkaritzatik "Naziometroa" egitasmoa lagunduko dute.

Kirol arloan, ohiko dirulaguntza zuzenak, laguntza bereziak, kirol teknikoaren prestakuntza, Eskola Kirola, eskolaz kanpoko kirol jardueretan parte hartzea edota kirol egoitua diruz lagunduko ditu Udalak.

Ingurumen alorrerako dirulaguntza irekiak eskainiko ditu Udalak, "pobrezia energetikoa, eraginkortasun energetikoa, energia berriztagarriak, hondakinak, natur ingurunea, mugikortasuna, ur saneamendua eta aire kalitatea" hizpide dituzten jardueretara. Horrekin batera, aire eta lurraren kalitatearen jarraipena egiteko laguntza eskainiko du.

Nekazaritza eta abeltzaintza alorretarako dirulaguntza irekiak sustatuko ditu, baita eremuakin lotura duten azoka eta ekintzak, edota sagardoen inguruko kultura.

Kultur arloari dagokionean, Jai Batzordeak, Udalbiltzaren Geuretik Sortuak egitasmoa, herriko jaietako ekintzak, herriko elkarten kultur ekimenak, Jakin Jardunaldia, kultur sormeneko egitasmoak edota buruhandien konpartsa diruz lagunduko ditu.

Gizarte Zerbitzuei dagokionean, premia bereziko egoeretara, Gizarte Larrialdietarako laguntzetara, gizarte ekintzen eremuan diharduten elkarteetara, desgaitasuna edota mendekotasuna duten adin txikikoen tratamenduetara, deserrotze eta baztertzeko sozialeko arriskuan dauden pertsonen senideengana, jubilatu elkarteetara, garabidean diren nazioetako herritarren egoera sozioekonomikoa hobetzeko lankidetzeta programe-tara, "Oporrak Bakean" egitasmoa..

## 1080 euroko gutxieneko pentsioa bermatzeko eskaera

1080 euroko pentsioa 14 ordainsaritan bermatzea eskatzea Eusko Legebiltzarrari eta Eusko Jaurlaritzari, 2023ko urtarilerara arteko atzeraeginezko ondorioekin. Eskaera hauxe biltzen duen mozioa aurkeztu zuen Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduak abenduko osoko bilkuran. Gehiengo osoz onartu zuten EHBilduren babesarekin, baina bi testu alternatibo ere aurkeztu zizkieten EAJk eta PSEk. Ez ziren onartu. EAJren bozeramaile Xabier Otxoak aldarri nagusiarekin bat egin arren, gai hau kudeatzeko eskumena Estatuarena dela gogorarazi zuen eta "eskualdatzeko dagoela oraindik", aurkeztu zuten mozio alternatiboak jaso bezala.

## "Borondate kontua da"

Egoera honen aurrean, pentsio duinen aldarria gauzatzeko dagoen oztopoa borondate falta dela adierazi zuen gobernu taldetik alkate Agurtzane Solaberrietak eta "ez hainbeste eskumen kontua", Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduak aurkezturiko mozioan jasotako eskaerak gutxienekoak, duinak eta justiziazkoak direla defendatzearekin batera. "Beti daude zirrirituak" zioen, borondatea egonez gero eskaera hau bideratzeko. Eskerrak helarazi zituen Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduak aurkezturiko mozioa sustatzen ari zen mugimenduko herrikide batek, gai honen inguruan udalbatzan egindako eztabai-dagatik eta baita aurkeztutako mozioa onartu zutelako. "Gure aldarrikapena, Europako araudian oinarritua" dagoela gogorarazi zuen, pentsio duinik gabe "egoera tamalgarrian" bizi diren hainbat herritarren egoera gogora ekartzearekin batera; "gehienak emakumeak", nabarmendu zuen moduan.



"Gazte, arraro, errebelde" izeneko podcast-a aurkeztu zuen Iñurri elkarteak.



Belaunaldiarteko topaketa antolatu zuten Zumarten, gabon kanten bueltan.



Udarregi ikastolako ikasleek Egurtzegin eskainitako gabonetako emanaldia.



Udarregi ikastolakoek herrian barrena eginiko gabonetako kalejira.



Zubietako eskolakoek senide eta lagunei eskainitako gabonetako kantu saioa.



Aginagako eskolakoek euripean egin behar izan zuten gabonetako kalejira.



Sektore publikoan deitutako greba egunarekin bat egin zuten udal langileek.



Gazte mugimenduak bat egin zuten Sareren Bilboko manifestazioarekin.



Santuenean kantuan hartu zuten auzotarrek Olentzero.



Olentzerori gutunak eman eta harekin argazkiak atera zituzten aginagarrek.



Mari Domingi eta Olentzero Kalezarko kaleetan barrena.



Mari Domingi eta Olentzero bidea argitu zieten galtzagorriekin.



Mari Domingiri eta Olentzerori eginiko harrera ekitaldi jendetsua plazan.




Irudiko koadrila mozorrotua saritu zuten, Hurbilago San Silbestre lasterketan.



Gaske topaketan amaieran, Txiskeroak herriko taldearen estreinako kontzertua.



AztarriKant, euskal kantuen bira egin zuten abenduaren 24an.



AztarriTruk ekimenean herritarrek bigarren eskuko produktuak begirutzen.



Abenduaren 26tik 28ra Gabonetako Haur Parkeaz gozatzen hamaika gaztetxo.



Gazte mugimenduen topaketetan mahai ingurua eta hitzaldia egin zituzten.



"Karpeta urdinak" torturei buruzko dokumentala eskaini zuten Sutegin.



lazko herri sorkuntzaren uzta ikusgai jarri du asteotan Sutegi udal liburutegiak.



Estreinakoz, traktore gainean heldu ziren hiru erregeak.



Jolasak egin eta gutunak eman zizkieten haurrek erregeen postariei.



Erregeak frontoira iritsi berritan herrikideak agurtzen.

# 650 Usurbil Bizi otarretako tokiko ekoizpena, herritarren esku

Herria batu zuen bigarren urtez jarraian, urte amaieran Usurbilgo frontoian banatutako 650 Usurbil Bizi gabonetako otarren ekitaldiak. Hitzordu honetan ziren egitasmo honen sustatzaile nagusiak.

Izan ere, ekitaldi hartan ziren Hurbilago elkarte, Usurbilgo Udala eta Usurbilgo Kultur-gunea. Haiekin 102 otarrak herri ekoizpenez hornitzeko ekarpena egindako herriko ekoizle eta sortzaileak, 29 gutzira. Haiekin baita, ekoizti edo sortutakoa herritarren esku jartzeko egin den zozketan parte hartu zuten Usurbilgo 17 saltokiak. Eta nola ez, dena horietan guztietan aurreko asteetan erosketak egin zituztenen truke, saski hauen zozketarako txartelak eskuratu eta saria egokitu zitzaizkien. Herri egitasmoa plazaratzeko aukera aproposa izan zuten guztiak.

## Balioa egiteari

650 Usurbil Bizi gabonetako otarren egitasmoan gogotsu parte hartu zuten eragileek ere hitza hartu zuten, saskiak banatzeko urteko azken egunean egindako ekitaldian. "Hemen gaude egiten ari garen guztiok", zioen Yolanda Arrieta Malaxetxebarriak. "Bata

ez da bestea baino gehiago, egunero asmatu egin behar delako, ez bakarrik letrekin, baita ere letxuga, tomate, arropa eta edozerrekin". Herri egitasmo honen balioa goraiatu nahi izan zuen. "Polita da erakusgarri egiten duelako eta erakusgarri egiterakoan balioa ematen zaiolako egiteari. Eta egite hori gero, partekatu eta saldu egin behar da".

Egin eta partekatze horri begira, gaineratu zuenez, "ondo dago behintzat jakitea herrian bertan, hain herri txiki-ertaina izanda, zenbat jende dagoen gauzak egiten. Hori iruditzen zait denontzako dela ona. Askotan urrutira joaten gara gauzen bila, ia-ia dena gertu dagoenean".

## Udarregikoek prestaturiko saskiak

Bezperan saltokietan zozketatu eta abenduaren 31n banatutako 102 otarrak produktuez hornitzeko lanetan jardun zuten iaz bezala, Udarregi ikastolako DBH4ko ikasleek.



Udarregiko ikasleen laguntzaz prestatu zituzten 650 Usurbil Bizi otarrak.

Haien guztien izenean hartu zuten hitza Norak eta Inigok. Zereginon truke, ikasturte amaieran egitekoak diren bidaiarako laguntzatxoa jasoko dute. "Udalak aukera hau eman zigun eta ezin genion ezetz esan", adierazi zuten ikastolako gazteok.

Ez da aipatu bidaiarako eskuratu duten finantziario iturri bakarra. "Urtero bezala, tortillen salmenta egiten dugu ostiralero jolasgaraian, hainbat azoketan gozogintzako produktuak saldu ditugu eta errifak ere bai. Horrez gain, gaur gure ikaskide batzuk Hur-

bilago San Silbestre herri lasterketan laguntzaile bezala parte hartuko dute. Kamisetak edo jertseak ere egin asmo ditugu aurrerantzean", iragarri zuten.

## Segida izateko gogoz

Herri egitasmo honen sustatzaile nagusiak Usurbilgo Udala eta Hurbilago elkartearen dira, Usurbilgo Kultur-gunearekin batera. Egitasmoaren berri izanda, ez zuten zalantzarik izan Kultur-guneokoei. "Kultur-gunearen izaeran dagoen ekimen bat da. Kultur-gunearen oinarrietako bat, euskal kulturzaleak sortzea da, tokiko kultur sortzaileak bultzatzea. Horregatik, ekimen hau bultzatzea eta bertan parte hartzea ezinbestekotzat ikusten genuen. Aurten, bigarren urtea izan da eta espero dugu beste hainbat izatea", adierazi zuen Kultur-guneoko kide Luken Arkarazok.

## "POLITA DA JAKITEA GURE MODUKO HERRI BATEAN ZENBAT JENDE DAGOEN GAUZAK EGITEN"



650 Usurbil Bizi otarren egitasmoa sustatzaileak.



Parte hartzaile guztien artean saritutakoak.



Otar-Goxoko eta Usurbil Optikako sarituak. NOAUA!



NI ileapaindegiko eta Opil-Goxoko sarituak. NOAUA!



Lizardi liburudendako eta Lurda mertzeriko sarituak. NOAUA!



Iratze natur dendako eta Laurok liburudendako sarituak. NOAUA!



Esnaola janari dendako eta Intza ileapaindegiko sarituak. NOAUA!



Artzabal jatetxeko eta Enar estetikako sarituak. NOAUA!



Ane ileapaindegiko eta Arruti harategiko sarituak. NOAUA!



Aizpurua okindegiko eta Alkartasuna Kooperatibako sarituak. NOAUA!



Manex Beristainek aitortu digunez, "ipuin honen bitartez nire bi semeen galderak ahalik eta ondoen erantzuten saiatu naiz".

# "Barruko korapiloak askatzeko baliogarri izaten ari da ipuina"

**MANEX BERISTAIN AGIRRE 'AZKEN GALDERA AMARI' IPUINAREN EGILEA**

Manex Beristain azpeitiarra *Azken galdera amari* (Denonartean) ipuinaz arituko da urtarrilaren 16an Sutegin. Kontakizunak kutsu autobiografikoa du eta bere seme txikiena da protagonista nagusia. Bi urte t'erdirekin, Ekainek ama galdu zuen. Minbiziak eraman zuen. Heriotza, dolua, galera... Arantzatsuak diren gaiei heldu die egile azpeitiarrak.

**Amaren heriotzari azalpen bat bilatu nahi dio Ekain txikiak. Tabuak diren kontu asko lantzeko proposa da *Azken galdera amari ipuina*.**

Mirari hil zenean, Ekainek bi urte t' erdi zituen. Ipuinari zentzu gehiago emateko, Ekainek 4 urte ditu kontakizunean eta amaren gaixotasunaren berri nola jaso zuen azaltzen du. Abiapuntua hori da, minbizi hitza lehen aldiz etxera sartu zeneko garaia.

Tabuei dagokionez, esango nuke helduok sartzen ditugula galera, heriotza eta dolua

bezalako kontzeptuak tabuen kapsulan. Umeek ordea, euren jakinminaren bidez eskura jartzen digute tabuen kapsula hori apurtzeko aukera. Ipuin honen bitartez, nire bi semeen galderak ahalik eta ondoen erantzuten saiatu naiz.

**Ipuin honen idazketari ekitea ez zen lan samurra izango.**

Guri gertatutakoa behin eta berriz kontatzen nuen. Beraz, lehen zatia (kronologikoa) idaztea ez zitzaidan hain zaila egin. Bigarren zatia ordea, fikzionatu egin nuen eta ho-

rretarako istorio bat sortu nuen. Bigarren atal honek denbora gehiago eskatu zidan. Zailena

**"UMEK, EUREN JAKINMINARI ESKER, ESKURA JARTZEN DIGUTE HERIOTZA EDOTA DOLUA BEZALAKO TABUEI AURRE EGITEKO AUKERA"**

ordea orrazketa prozesua izan da. Esaldi eta kontzeptu bakoitza argitu, hitz batzuk beste batzuentatik aldatu,... Bi urteko prozesu luzea izan da.

**Diotenez, sormena –dela idazketa, dela musika, dela marrazketa...– oso lagungarria izan daiteke horrelako egoera baten aurrean. Tristura eta amorrua kanporatzeko tresna egokiak dirudite. Zuen kasuan ere hala izan al da?**

Sendagarria izan zen batez ere ipuinaren haurdunaldi prozesua amaitu zenean. Argitalpena lehen aldiz eskuetan hartu nuenean oso inpaktantea izan zen. Bi semeekin batera irakurri nuen ipuina eta ipuinaren inguruan hitz egiteko tartea hartu genuen.

Ipuina azkar eta oso ondo zabaldu da gainera, eta horrek ere barrenak mugitu dizkio Ekaini (seme gazteenari). Emozio asko kanporatzeko baliogarri izan da. Aurkezpen ekitaldirako ere, Ekainen eta Julenen (Ekainen anai zaharra) ahotsak grabatu ditugu.

**Eta orain, "Ekainek bizitzaren olatuan aurrera darrai". Liburuaren amaieran esaten den bezala.**

Ez dago besterik. Bizitza horretarakoxe da, bizitzeko. Olatuaren gainean batzuetan, eta olatuaren azpian bestetan. Eta azken honi izkin egiten diogu askotan. Momentu zailetan, tristura sentitu berritan, kalera atera eta min hori ahazten saiatzen gara. Gu aldiz, tristura horri leku egiten saiatu gara. Minari leku bat egin diogu. Gertatutakoaz hitz egin dugu, negar egin dugu...

Ipuinaren inguruko hainbat solasaldi eskaini ditugu dagoeneko, eta konturatu naiz min handia dagoela jendearengan; eta ipuinak barruko korapilo hori askatzeko balio duela. Jendeak bere baitan darama min hori, eta ohitu egiten da min horretara.

Benetako gertaeretan oinarrituta dago ipuina, eta eus-



→ karaz idatzita dagoenez, gure lana oso gertukoa egiten zaie irakurleei. Kapitulu bakoitzak gai ezberdin bat ukitzen du: zaintza, gaixotasunak eragiten duen galera fisikoa, agurtzeko momentua, omenaldia egiteko unea... Gai asko lantzen dira eta jende askorentzat lagungarri izaten ari da.

**Hitzak bezain adierazgarriak dira marrazkiak. Ipuineko ilustrazioak Mirari Sagarzazu Sacristanek egin ditu. Erraza izan al da idatzitakoa irudietara ematea?**

Ilustratzailearekin konexio berezi bat sortu zen. Nigan marrazkiak bazeuden eta horiek hitzez azaldu nizkion Mirariri. Aitortu behar dut oso ondo islatu duela nik adierazi nahi nuena. Oso marrazki errealistak dira eta emozio asko transmititzen dituzte aldi berean.

**Liburuaren amaieran, haurrekin lantzeko moduko hausnarketak eskura daitezke QR kode baten bidez. Zentzu horretan, zure argitalpena interaktiboa dela esan daiteke.**

Ipuin hau proiektu baten baitako elementu bat da. Lehen helburua ipuina zabaltzea da, ipuina eta ipuinak dakarren mezua. Bigarren helburua litzateke ipuin kontaketa saio bat prestatzea. Eta hirugarren helburua edo zutabea litzateke heriotzaren eta doluaren inguruko tailer bat prestatzea. Eskolan eskaintzeko modukoa, ikasle, irakasle zein gurasoei zuzendua.

QR kode horren bitartez, ipuinaren inguruan hausnartzeko tresna eta dinamika ezberdinak bideratu nahi izan ditugu.

**Azken galdera amari duela gutxi argitaratu da Denonartean argitaletxearekin. Zer nolako harrera izan du orain arte?**

Ipuina urriaren 27an aurkeztu genuen Azpeitian eta gaur arte 17 bat aurkezpen egin ditut. Oso harrera ona izan du. Uste dut ale asko saldu



"Ipuina urriaren 27an plazaratu genuen Azpeitian eta gaur arte 17 bat aurkezpen egin ditugu", Manex Beristainek azaldu digunez.

direla eta jende askorengana iritsi dela. Eta oraindik bide luzea du egiteko.

**Sutegiko saioari buruzko oharra**

Urtarrilaren 16an asteartea, Manex Beristain Sutegin izango da. Solasaldi honetan hizpide izan dugun ipuinaz jar-

dungo du. Gaztetxoek ere emanaldira hurbiltzeko aukera izango dute. 5 urtetik aurrerakoak, eta beti ere heldu baten laguntzarekin.

Emanaldia arratsaldeko 18:00etan hasiko da eta doa-koa izango da baina plazak mugatuak direnez, izena eman behar da alde zurretik Sutegi udal liburutegian bertan.

**"HAINBAT SOLASALDI ESKAINI DITUGU DAGOENKO ETA KONTURATU NAIZ MIN HANDIA DAGOELA JENDEARENGAN"**

**"SUTEGIKOA EZ DA IPUIN KONTAKETA HUTS BAT IZANGO. BARNE-BIDAIA BAT IZANGO DA. HELDUENTZAT ZEIN HAURRENTZAT EGOKIA"**

**Kantak ere baliatzen ditu aurkezpenetan**

**Urtarrilaren 16an asteartea, Sutegin izango zara. Nolakoa izango da saioa?**

Ez da ipuin kontaketa huts bat izango. Barne-bidaia bat izango da, helduentzat zein haurrentzat egokia. Kanta batzuk abestuko ditugu eta kapituluka aurkeztuko dut, Ekain eta Julen nire semeen grabazioak baliatuz. Bestetik, nire dolu prozesuan lagungarriak izan zitzaizkidan tresnak eta idatzitakak partekatuko ditut.

Jon eta biok aritzen gara aurkezpen ekitaldietan. Jon musikaria da eta gitarrarekin laguntzen dit. 40 minutuko ikuskitzun bat izango da, jendearen bihotzak erabat hunkitzen dituen.

**Barreterapia tailerrak ere eskaintzen dituzu. Duela gutxi Santuenean izan zinen. Ondo joan al zen?**

Barreterapia tailerrak, talde-kohesio zein ongizate tailerrak eta jolas zein sormen tailerrak eskaintzen ditut.

Santuenean helduentzako barreterapia tailerra egin genuen eta oso berezia izan zen. Erabat askatu ziren, asko disfrutatu zuten eta barre pila bat egin zuten. Familien ingurukoa ere egin genuen ondoren, eta hura ere oso esperientzia positiboa izan zen.



Bilboko manifestazioa 16:00etan hasiko da. Usurbilgo autobusa 14:00etan irtengo da Oiaro kiroldegitik.

## Sareren manifestaziora joateko autobus zerbitzua iragarri dute

'Konponbiderako giltzak' aldarrpean, manifestazioa deitu du Sarek larunbat honetarako.

Deialdiari atxikimendua adierazteko baliatu zuen Usurbilgo Sarek abenduaren 29ko urteko azken elkarretaraztea. Urte berri honi begira, preso, errefuxiatu eta iheslariei aplikatzen zaien salbuespen egogarekin amaitu eta haien guztien eskubideak errespetatzeko urte berri honek erabakigarria izan behar zuela zioten.

"Lanean jarraitzea eta mobilizazioei eustera animatzen zaituztegu", deitu zuen Sarek.

Konponbiderako giltzak eskuartean, albiste honi atxikitako herri argazkia atera zuten, euria tarteko frontoian egin behar izan zuten mobilizazioan. Manifestaziora begirako kontuan hartu beharreko oharrek segidan. Urtarrilaren

13an izango da aurreikusitua, La Casillatik baina iragarritakoa baino ordubete lehenago, 16:00etan abiatuko da, Bizkaiko hiriburuan arratsalde horretan jokatu den Realaren eta Athleticen arteko partida tarteko. Ondorioz, Usurbilgo Sarek antolatuko duen autobus zerbitzua ere goizago abiatuko da hilaren 13an, Oiaro kiroldegitik; 14:00etan hain zuzen. Autobus zerbitzurako izena Aitzagan, Txiribogan, Txirristran eta Bordatxon eman ahalko duzue.

Bestalde, Euskal Herri mailako mobilizazio horri begira Sarek kaleraturiko manifestuarekin bat egiteko aukera dute norbanakoek nahiz eragileek giltzak.sare.eus atarian.

## "Artxibo biluzia" egitasmoaren inguruko tailerra eta konferentzia performatiboa

Joan Mari Torrealda beka deialdian, Metrokoadroka kolektiboaren lana hautatu zuten. 'Artxibo biluzia' proiektuaren baitan, literatur idazketa eta performancea uztartzen dituen tailerra antolatu dute larunbat honetarako. Zortzi orduko saioa

izango da Sutegin, ordutegi honetan: 09:30-14:00/16:00-19:30. "Zer istorio nahi zenuke historiara pasatzea?". Galdera horren bueltan, "parte hartzaile bakoitzak kontatu nahi duen istorio baten inguruko tailerra" izango da, "istorioei loturiko

dokumentuetatik abiatuta. Performancea eta literatur idazketa uztartzen dituen tailerra" antolatzaileren esanetan. Aste hasieran itxi zuten izen-ematea.

Aldiz, biharamunean, urtarrilaren 14an 18:00etan hasita Sutegin eskainiko den konferentzia performatibo eta antzerkirako gonbidapenak bai, eskuragarri dituzue oraindik usurbilkultura.eus plataforman.

## KzGunea arratsalde irekiko dute urtarrilean

Urtarrilaren 29ra arte 16:00-20:00 artean irekiko dute Usurbilgo KzGunea. Honatx datozen ikastaroei buruzko xehe-tasunak:

- Urtarrilak 16, 18:00-20:00 "Egon zaitez aktibo Google Fit eta Wikilocekin".
- Otsailak 1-9, 11:00-13:00 "Smartphoneak eta tabletak. Android gailua erabiltzen ikasi".
- Otsailak 12-22, 11:00-13:00 "Google Aplikazioak zure Smartphonean".
- Otsailak 23-29, 11:00-13:00 "Mekanografia. Ikasi hutsetik".

Informazio gehiagorako:

kzguna.eus

943 023 684

tutor.usurbil@kzguna.net

## Aurrerantzean, Oiaro kiroldegia zabalik izango da eguerdietan

Urte hasieratik eguerdietan ere zabalik topatuko duzue Oiaro kiroldegia. Hauxe izango da ordutegi berria:

**Urtarriletik ekainera eta irailetik abendura:**

- Lanegunak: 07:00-22:00 (igerilekua 21:45).
- Larunbatak: 09:00-21:30 (igerilekua 21:15).
- Igande eta jai egunak: 09:00-13:30 (igerilekua 13:15).

**Uztailean eta abuztuan:**

- Lanegunak: 07:00-20:15 (igerilekua 20:00).
- Larunbat, igande eta jai egunak: 09:00-13:00 (igerilekua 12:45).

**Antxeta**  
TABERNA  
egunero irekitzen dugu!  
eguneko menua · asteburuko menua  
oilasko erreak, ogitartekoak, razioak..  
paellak enkarguz!  
943 54 43 12 Zubiaurrena 6, Usurbil.

**eskura**  
elikadura eta dietetika aholkularitza  
DIABETESA, HIPERTENSIOA,  
GIZENTASUNA, ELIKADURA  
ETA KOLESTEROL ARAZOAK  
688 843 696  
Zubiaurrena 1, 1c Usurbil

**BORDATXO**  
taberna  
Pintxo Bereziak  
943 37 10 42

**URDAINTZI S.L.**  
Eraikuntzak  
649 43 54 75  
943 36 72 64  
IT-ck egiten dira  
ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK



Lazkao nagusitu zen Usurbil F.T.-ren Harane Txapelketa 2023 ekimenean.

## Futbolari gaztetxoek topagune, Harane Txapelketa

Alebin mailako lehen urtekoen arteko topaketa egin zuten Haranen abenduaren 26an. Zortzi taldeok parte hartu zuten bi multzoetan banatuta: Usurbil FT A, Orioko FT, Billabona FKE, Mundarro KE, Usurbil FT B, Lazkao KE, Añorga KKE eta CD Vasconia. Lazkao izendatu zuten txapeladun, Mundarro, Billabona eta Añorga lehiakide izan zituen azken fasean.



Ehunka lagunek agurtu zuten urtea Hurbilago San Silbestre herri lasterketan.

## Herri merkataritzaren eta ostalaritzaren alde lasterka, urte zaharraren agurrean

Bizi asko, nahieran jantzita eta festa giro betean agurtu zuten urte zaharra ehunka herrikideek abenduaren 31n egin zen Hurbilago San Silbestre herri lasterketaren bidez; banaka, bikoteka, koadrilan, familian... Eta mozorrotuta. Berrogeitik gora parte hartzaile saritu zituen amaieran antolakuntzak. Irudi gehiago noaua.eus atarian dituzue.



Urte berria Andatzen hasi zuten herritarrak. Haiek helarazitako argazkia duzue.

## Urte berriari harrera egin zioten Andatzen

Gautxori bat baino gehiago etxerako bidean izango zen unean, urte berriari goizean goizetik ekitea erabaki zutenik izan zen, eta ez gutxi. Urteroko ohitura berritzeko aukera izan zuten urtarrilaren lehenean, giro eguzkitsua bidelagun zutela Andatzara igo zirenek. Borda parean bildu zirenak dituzue haiek helarazitako goiko argazkian.



Urtarrilaren 28an egingo da hurrengo Irisasi BTT Hotzak Akabatzen ekimena.

## Izen-ematea zabalik, datorren Irisasi BTT Hotzak Akabatzen probarako

Urtarrilaren 28ko probarako izen-emateak zabalik segiko du urtarrilaren 24ra arte, kronoak.com atarian. 500 lagunentzako lekua egongo da baina "urtero 500 izen-emateetara heltzen gara, beraz, ez itxaron azken unera arte". Bi ibilbide izango dira aukeran; "bat luzeagoa eta teknikoagoa, bestea motzagoa eta denon gozamenerako".

**ZENDOIA**  
**ENA** taberna  
Kale Nagusia 35, Usurbil

**USURBIL DÖNER KEBAB**  
843 675 265  
603 609 183  
USURBIL DÖNER KEBAB USURBIL\_DK  
Borda Berri Kalea, 5

**ARRANDEGIA**  
**PELLO**  
9:00-13:30  
ASTEARTETIK LARUNBATERA  
PUNTAPAX 7, 650 31 31 91

943 361 182  
**EROSKI** / city  
kale Nagusia 10, USURBIL



Usurbil K.E. infantil nesken taldea.



Usurbil K.E. infantil mutilen mailako A eta B taldeak.

# Etxekoak punta-puntan Mirotzen omenez

Mirotzen omenezko eskubaloi txapelketan, usurbildarrak puntan ibili ziren. Lehen postuan amaitu zuen infantil mutilen A taldeak eta hirugarren postua erdietsi zuten neskek abenduaren 29an jokatu zen 14. eskubaloi torneoan. Mutilen B taldeak 5. postua lortu zuen.

Abenduaren 29an jokatu zuten Mirotzen omenez egindako 14. eskubaloi txapelketa. Infantilen artean jokatutako neska zein mutilen txapelketan sei talde aritu ziren norgehiagoka: Usurbil K.E, Anaitasuna, Tolosa C.F, Pulpo E.K, Zarautz Z.K.E eta Basauri E.T. Gonbidatuek bi talde aurkeztu zituzten, mutilena bata eta neskena bestea. Usurbil K. Eren kasuan, ordea, mutilen bi talde aritu ziren torneoan A eta B taldeak. Emaizta ederak lortu zituzten etxeko taldeek. Neskek hirugarren postua erdietsi zuten, mutilen A

taldea garaile izan zen eta B taldeak bosgarren egitea lortu zuen.

Goizean talde bakoitzak bi partidu jokatzeko aukera izan zuen 12 minutuko bi zatitako partiduetan. Orduerdiko iraupena zuen, gutxi gorabehera, partidu bakoitzak.

Bazkalosterako, emaitza onenak eta ez hain onak lortutako taldeek arratsalderako zein partidu jokatu beharko zuten jakin zuten. Arratsaldean, postuen arteko borroka izan baitzen: 5 eta 6. postua jokoan lehenengo, 3 eta 4. postuak ondoren, eta azkenik final

handia txapelkunak eta azpitxapelkunak erabakitzeke. Zazpietarako erabakita zegoen sailkapen orokorra.

Iluntzean egin zuten sari banaketa eta Usurbilgo nesken taldea eta mutilen A taldea kopa eskuan itzuli ziren etxera. Usurbilgo eskubaloi

klubaren alde eta klubean egindako lanagatik hainbat herritar ere omendu zituzten sari banaketan.

## Errifako zenbaki saritua

412 izan zen errifa zozketako zenbaki saritua. Jabeak dagoeneko jaso du saria.

## Sailkapenak

### Mutilak:

1. Usurbil K.E A
2. Pulpo E.K
3. Zarautz Z.K.E
4. Anaitasuna
5. Usurbil K.E B
6. Tolosa C.F

Jokalari onena: Danel Jimenez (Usurbil K.E A).

### Neskak:

1. Anaitasuna
2. Pulpo E.K
3. Usurbil K.E
4. Basauri E.T
5. Tolosa C.F
6. Zarautz Z.K.E

Jokalari onena: Akane Goikoe-txea (Anaitasuna).

## LEHEN POSTUA LORTU ZUTEN MUTILEK ETA HIRUGARRENA NESKEK



Danel Jimenez (Usurbil K.E A) jokalaria onena saria jasotzen.



Usurbil K.E. klubaren alde egindako lanagatik omendutako herritarrak.

## MERKATU TXIKIA

## ETXEBIZITZAK

## ALOKAIRUAN

Bi logelako pisu bila nabil. Presazkoa da: 643 022 475.

Neska edo emakume batentzako logela bat daukagu alokatzeko Usurbilen. 609 647 728.

Alokairuan hartzeko oztopo arkitektonikorik gabeko etxebizitza txiki edo estudio baten bila gabilta. Adin nagusiko bikote bat. 627184674

## MOTORRA

## SALMENTA, GARAJEAK

Garaje itxia salgai herri sarreran. 646 601 947 (18:00etatik aurrera).

Garajeko marra bat eskaintzen da errentan hartzeko, herriaren erdialdean. 636601644.

Munalurra 4 zenbakian lokal bat daukagu alokatzeko. 652 765 583.

## IRAGARKIA JARTZEKO:

NOAUA!KO BULEGOTIK PASA

ERREDAKZIOA@NOAUA.EUS

943 360 321

## LANPOSTUAK

## LAN ESKAINTZAK

Aginaga sagardotegian txotx garaian larunbat eguerditan zerbitzaria behar da. 943 36 67 10

Sukaldari laguntzailea behar dugu lanaldi osorako Kalezarko Matiaren auzuneko kafetegirako. 670 654 272.

Umeak zaindu, eskolara eraman edo etxekolanak egiten lan egingo nuke. Goizez edo arratsaldez aritzeko prest. 616273785.

- Asteleheneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Iragarki berriak sartu ahala, zaharrak ezabatuko ditugu.
- NOAUAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Datorren ikasturtean haurrak eskolatik jaso eta etxera ekartzeko pertsona baten bila gabilta. 12:00-14:00, asteleheneetik ostiralera. Kotxea izatea eta euskara jakitea beharrezkoa. 617792736

## LANPOSTUAK

## LAN ESKAERAK

Astean zehar zein asteburuetan haurrak zaintzeko prest dagoen neska

usurbildarra naiz. Esperientzia daukat. 676584506.

Haurrak zaintzeko lan bila nabil. Esperientzia daukat. 695 18 41 79

Soziosanitario titulua dut. Jende nagusia zaintzeko prest, orduka, edo gau eta egun. 632 360 758.

Manikura egiteko zerbitzua eskaintzen dut. 611282203.

## BESTELAKOAK

Belarritako bat aurkitu genuen kaleari, Abenduaren 8aren inguruan. Galdu baduzu deitu: 607 168 352.

Eskuz eta modu artizanari egindako egurrezko ontzitegia edo armairu dotorea daukat salgai. Estilo rustikoa duena, baserri edo negozio baterako aproposa. Ikusteak merezi du eta prezioa negoziagarria da. 622 353 183.

## Futbol partidak

## Haranen

## Urtarrilak 13, larunbata

- 09:00 Infantilak:
- Usurbil FT B-Lengokoak SD
- 10:30 Kadete B neskak:
- Usurbil FT B-Arrupe Chaminade
- 12:15 Kadete B mutilak:
- Usurbil FT B-Lengokoak SD B
- 15:30 Jubenilak B:
- Usurbil FT B-Mundarro K FKE B
- 17:45 Preferente neskak:
- Usurbil FT-Santo Tomas Lizeoa KE

## Urtarrilak 14, igandea

- 10:00-12:00 Futbol eskola.
- 17:45 Jubenilak, preferenteak:
- Usurbil FT A-Real Union

## Haranetik kanpo

## Urtarrilak 13, larunbata

- 12:15 Infantil mutilak, Erretereriako Fanderian: Touring-Usurbil FT A
- 15:30 Erregionalak, Alegian: Intxurre KKE-Usurbil FT B
- 16:45 Kadete neskek, Donostiako La Sallen: Antiguoko-Usurbil FT A
- 17:30 Preferente mutilak, Martutenen: Roteta CD-Usurbil FT

## Urtarrilak 14, igandea

- 13:30 Infantil neskek, Donostiako Felix Garinen: Arrupe-Usurbil FT

## Eskubaloit partidak

## Urtarrilak 13, larunbata

- 10:00 Infantil mutilak: Usurbil B-Leizaran Urdina B
- 15:45 Kadete mutilak: Usurbil-Saieko Bar Oxkarbi
- 17:30 Jubenil neskek: Usurbil KE-Ereintza Aguaplast
- 19:30 Senior neskek: Urbil Usurbil KE-Ordizia BIOD2

## Boleibola Oiardon

## Urtarrilak 13, larunbata

- 12:00 Infantilak: Udarregi-Bera Bera
- 12:00 Kadeteak: Udarregi-Lizardi

## Pilota Usurbilen

## Urtarrilak 12, ostirala, 18:00

- Pagazpe - Kuku (2. Maila)
- Pagazpe - Arrasate (3. Maila)

## HILDAKOAK



**Cristina Unsain Elustondo**  
Abenduaren 22an hil zen, 82 urterekin.



**Jose Antonio Tames Ruiz**  
Abenduaren 30ean hil zen, 84 urterekin.



**Miguel Matilla Malaga**  
Abenduaren 31n hil zen, 76 urterekin.



**Manolo Aizpurua Lizarreta**  
Urtarrilaren 1ean hil zen, 78 urterekin.



**Urko Pikabea Diez**  
Urtarrilaren 2an hil zen, 12 urterekin.



**Lurdes Ariztegi Mindegia**  
Urtarrilaren 7an hil zen, 72 urterekin.

## ZORION AGURRAK



**Zorionak Xune!**  
Urtarrilaren 8an 9 urte bete zenituelako! Primeran ospatu genuen eguna! Muxu handi bat familia guztiaren, eta bereziki, Haizearen partez. Segi orain bezain alai!



**Zorionak Irati!** Urtarrilaren 8an 6 urte bete dituzu. Ondo ospatuko zenuelakoan, lagun eta senideekin.



**Zorionak Kattalin eta Marox!**  
3 belarri tirakada etxekoan partez! Gozatu zuen eguna eta muxu pottolo pilla pilla. Matte zattuztegu.

## AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTELEHEN EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

## OSTIRALA 12

## USURBIL Joxan Artze gogoan

Sei urte dira Joxan Artze hil zela. Oroimen eta gorazarre mezuak idazteko Erregistro Liburua eskuragarri egongo da udal liburutegian.

*Egunean zehar, Sutegi udal liburutegian.*

## LARUNBATA 13

## USURBIL "Artxibo biluzia": tailerra

Joan Mari Torrealdei bekan oinarritutako "Artxibo biluzia" egitasmo artistikoa: Izen-ematea urtarrilaren 8ra arte egon zen zabalik.

09:30-14:00/16:00-19:30  
*Sutegin.*

## USURBIL Sareren Bilboko mobilizaziora joateko deia

Usurbilgo Sarek autobus zerbitzua antolatatu du.

14:00 *Oiardo kiroldegian.*  
16:00 *Manifestazioa Bilbon.*

## IGANDEA 14

## USURBIL "Artxibo biluzia": konferentzia performatiboa eta antzerkia

Joan Mari Torrealdei beka. Hori izan da Metrokoadroka kolektiboaren ikerketa eszenikoa abiatzeko pizgailua. Sarrerak: gonbidapena eskuratu behar da alde zuzenean, usurbilkultura.eus plataforman.  
18:00 *Sutegin.*



Argazkian, iaz omendu zituzten odol-emaileak.

## Hitzordu bikoitza dute odol-emaileek

Eguberriak tarteko, urtarri-leko lehen astelehenean ez hirugarrenean, urtarrilaren 15ean izango da bi hilean behin Usurbilgo odol emaileen elkarteak deitzen duen odol-ematea. Ohiko ordu eta tokian izango da; 16:30-20:10 artean Udarregi ikastolako erdiko aretoan. Aurrez odola eman dutenei hitzordua finkatuko zaie. Lehen aldiz odola ematen dutenek dei dezatela 943 007 884 telefono zenbakira.

## Urtarrilaren 21ean, Odol Emaileen Eguna

Urtarrilaren 21erako antolatatu du aipatu bilguneak Odol Emaileen Eguna. Urteroko bazkaria aurten Antxeta jate-txean egongo dute.

Otordu honetara joan nahi dutenek, telefono bidez eman behar dute izena, 943 363 102 (Agustina) edo 619 125 644 (Mari Jose) zenbakira deituz. Bazkalostean, hainbat alditan odola eman duten herrikideei oroigarriak banatuko dizkiete.

## Iaz 140 lagun hurbildu ziren odola ematera

Deialdion berri ematearekin batera hain zuzen, 2023ko balantzea plazaratu du Usurbilgo Odol Emaileen Elkarteak. Iaz 140 herrikide joan ziren odola ematera. 204 odol poltsa osatu zituzten, aurreko urtean baino 14 gutxiago. Nabarmendu dutenez, gazte asko hurbildu zen iaz odola ematera.

## Kantu Taldeko ikasturtea hastear da

Urtarrilaren 15ean ekingo diote ikasturte berriari, arratsaldeko 18:00etan Age-rialdeko musika gelan, Jaione Eskudero-oren gidaritzapean. Izen-ematea lehen entsegu saio horretan bideratuko dute.

## Inauteri Festarako mozorroa

Gaia erabakitzeko urtarrilaren 17ra arteko epea zabaldu du NOAUA! Kultur Elkarteak. Otsailaren 10eko Inauteri Festan zertaz mozorrotu nahi duzuen, zuen ekarpenak bideotatik egin ditzakezue:

- elkarte@noaua.eus
- 688 807 336

## Azken urteotakoak:

2023: Filmak.  
2022: Gai librea.  
2021: Ez zen Inauteri Festarik antolatatu.  
2020: Dantza.  
2019: Jolasak.  
2018: Ospetsuak.

**JUANTXO**  
BURDINDEGIA  
Zubiaurrenea 8, USURBIL  
943 37 00 08

**ARTZABAL**  
BASERRIA · JATETXEA  
www.artzabaljatetxea.com 943 36 91 39

·EGUNEKO MENUA  
·KARTA  
·RAZIOAK  
·HANBURGESAK  
·BOKATAK

Instagram Facebook

**Iñaki Iturgintza**  
BEROKUNTZA · GASA · AIRE EGOKITUA · ZORU BERO-EMAILEA  
ITURGINTZA · ENERGIA BERRIZTAGARRIAK  
info@inakiturgintza.com · www.inakiturgintza.com  
600 024 825

*Aukeratu zure plana!*

**eskura**  
elkadura eta dietetika aholkularitza

**NUTRIZIO PLANAK:**

*\*4 kontsulta + "Nutrizioaren 12 gako estrategiko" eta sukaldaritza tailerra :160€*

*\*Sukalde plana:*

*Nutrizioaren 12 gako estrategiko solasaldia + sukaldaritza tailerra : 60€*

*\*2 kontsulta libre: 90€*

*\*Familia orientazioa: 2 kontsulta + sukalde tailerra 160€*

**Zubiaurrenea 1 -1°C, Usurbil - 688 843 696**

**BAZKIDEEN TXOKOA**  
noaua! euskararen aterpe



**ERRIGORAKO PRODUKTUEN**  
**Bi saski**  
**zozketatuko ditugu**  
**NOAUA!ko bazkideen artean**

BERRIA HERRI  
BESTE  
25  
EAIETZ!




Bazkide egiten bazara, zozketa hauetan parte hartzeko aukera 943 360 321 / elkarte@noaua.eus

Urtarrilaren 12an, ostirala, arratsaldeko 20:00etan

Usurbilgo

# TXOTX

denboraldiaren  
X. irekiera Saizar-en



Luis Miguel Arconada eta Iker Casillas,  
atezain ospetsuak izango dira Ohorezko gonbidatuak

Trikitalariak eta Dantzariak:  
**KORRONTZI Taldea**

Bertsolaria:  
**Sebastian Lizaso**

Aurkezlea:  
**Julian Iantzi**

Abeslaria:  
**Mikel Erentxun**

Musika Taldea:  
**GATIBU**



**SAIZAR**  
Sagardotegia

**OHARRA:**

SOILIK SARRERA IZANGO DUTE  
ERRESERBATUTAKO MAHAIEK.